

**DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016 EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016 CAPITAL EUROPEA**

2016-01-23 Donostia – San Sebastián 23-01-2016

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Agintariok, herri ordezkariok, jaun andreok, arratsalde on.

“Liburu hau eskuetan hartu eta eman ezazu paseo bat... Ederra izango da paseoa, atsegina eta inspiratzailea irakurketa.” Hau da Bernardo Atxagak “Muskerraren bidea” liburuan egiten digun proposamena.

Bertan honako hau gogoratzen digu: “Euskal Kulturari buruzko Nazioarteko Batzarra egin zen Oñatin 1918. urtean, historian aurrenekoa. Ia ehun urte igaro dira eta katea ez da eten”.

Gaur “Donostia 2016” aurkezten dugu, paseo atsegina egiteko proposamena, ibilbidean aurrera egiten jarraitzeko, xede bera mantenduz:

- Bat, “Batzarra”, hau da, denon arteko lana...
- Bi, “Euskal Kultura”, Herriaren nortasuna eta sorkuntza...
- Hiru, “Nazioartekoa”, mundu zabalera irekia.

Donostia eta Euskadi mende eta mundu berriari begira gaude; Europako eta Nazioarteko kultura bideak jorratzen eta zabaltzen jarraitzeko asmoz.

Bide honen hasieran kultura sortzaileak goraiatu nahi ditugu, beraien ekarpena eskertu.

Reconocemos a las personas que piensan y divulgan, escriben y leen, esculpen, dibujan y pintan, ruedan y graban, bailan, componen y cantan...

Subrayamos la aportación de las personas creadoras, porque la cultura es conocimiento, emoción, experiencia, convivencia y, también, capacidad de transformación.

La apuesta por la cultura ha sido esencial en la proyección de Euskadi como País moderno y universal. La cultura es expresión de lo que somos y

exponente de lo que queremos ser, como personas, como sociedad y como Pueblo.

Elkarbizitza elkarren arteko zubiak eraikitzea da. Atzera begira, indarkeriak harremanak eteten ditu, hesiak eraikitzea du xede. Gizartea gotortu egiten du. Horregatik dira zubiak beharrezkoak. Horregatik bizikidetza, desberdinen arteko zubia.

Mundu zabalera begira, zubiak behar ditugu. Ez harresiz eta hesiz osatutako Europa bat. Europa zubi sistema zabal bat dela sinisten dugu.

Gaur Donostiak aldarrikatzen du kultura zubigintza dela eta guztiok garela zubigile. Herritarra ez da ikasle, entzule, ikusle hutsa. Ez da pasiboa. Kulturgintzan eta zubigintzan aktiboa da. Oso oinarrian du Donostiak zubiekiko lotura.

Urte oso honetan kulturaren adierazpenen arteko zubiak eraiki nahi ditugu. Idazle, antzerkigile, musikari, poeta, zinemagile, arkitekto, dantzari, artegile, bertsolari, denak daude sortzera eta elkarrengana biltzera deituak. Norbera bere nortasunetik, guztiona indartuz.

“Je suis un autre” adierazi zuen Rimbaud-ek eta bide horretatik abiatu da Atxaga: “Beste norbait naiz ni. Ez dugu jada nortasun bakarra, bat baino gehiago gara gure barnean. Bidaien eta komunikazioaren mundu honetan, gizarte tradizionalak eusten zuen nortasun bakarra desagertu da. Mundu aldakorra den moduan da aldakorra nortasuna.”

Gure nortasun berezitik, elkarbizitzari ekarpenak egitea amesten dugun guztion arteko zubiak egiteko aukera da Donostia 2016.

Recuperamos el espíritu de este Pueblo capaz, hace casi cien años, de organizar un Congreso Internacional de Cultura Vasca. Este espíritu encuentra continuidad en la ilusión y ambición con que Donostia – Basque Country inicia la capitalidad cultural europea. Una oportunidad de fortalecer nuestra propia identidad, abierta al mundo.

Este es el momento de reafirmar la Cultura como eje fundamental del futuro de Euskadi, de la construcción de una sociedad crítica y madura, con personas abiertas y con valores sólidos.

Vocación cultural, colaboración y trabajo común convierten este momento en punto de inflexión de una Euskadi que sabe entender el nuevo tiempo y

espacio; que asume el significado de la cultura en el mundo global: “convivir es vivir con.”

Donostia 2016 ratifica nuestro deseo de participar del carácter universal que nos otorga la cultura. La cultura fortalece Basque Country en una Europa que se construye desde los valores, el respeto, diversidad y apertura.

Europako kultura hiriburua gara, jarraitu dezagun elkarrekin kulturaren zubiak irudikatzen, sortzen, eraikitzen, sendotzen, indartzen, gurutzatzen, gozatzen...

Eskerrik asko Europa eta zorionak Donostia, “ederra izango da paseoa”...